

OTOITZAK

NICOLAS ORMAECHEA (ORIXE)
De su obra Euskaldunak

Aralar'a asteartez egin zan erregu;
Ez da ere kupitzen Migel Goiangeru
Zerua noiz artean ote da asarretu?
Eliz-egutegiak beste egun bat ba du:
Oraindi itxaropena ez da guztiz galdu.

Lengo oiturak okertuz, jan-edan zurrean,
Aldapa goitzen zuten aspaldi luzean.
Aien aiten aitonaz, agiz, oiñutsean,
Emazteek otoitza jaldiz ezpaiñean,
Jainkoa lagun zuten estutasunean.

Errikal lau arkume, Lekunberri'tik sei,
Eramaten ditute amar ta irurogei.
Urrena Aralar'eko egiña dute dei
Zerua beartzeko ein bear dala mei,
Euritan lertu dedin begietako odei.

Galtzarbean arturik beren ertekoa
—Egun artan lotza da zintzilik zatoa—
Erriak asi dira igaroz *Malloa*.
Gure biko gazteak bai baitzun asmoa,
Saillean nasi gabe jardukiz dijoa.

Lekunberri'ko mugan lenengo ordipena,
Goiko bidexkan dago Gurutzearena.
Ata'ko gurutzeraz beidatu zuzena
Egiñez, berri due amandren arrena,
Goizetik otoitz onez berotuz barrena.

Bederatzi «Gloria» aingeu-taldekini;
«Nor Jainkoa bezala? ondolik eraskin
(«Mikel» izenak au du barnean berekin);
Dei eder au entzunik mutillak atsegin,
Bataioan igurtzi baitzuten arekin.

Lekunberri'tik gora Iribas aldera,
Aundia da an-emenka jendeen joera:
Madotz, Oderitz, Astitz, utzi ezkerrera,
Zortzi erritakoak andik igotzen gera;
Baraibar'kotik beste seiak igoera.

Arruitz, Aldatz, Etxarri, Alli, Lekunberri,
Iribas ta Mugiro, olekin Uitzu.
Azpiroz ta Baraibar: or dira amazapi;
Maillo aldetik berriz, *Araiz*'ko sei erri.

Gora-ala, noizean-bein itzuliz begia,
Mutillak jalditzen du dakien guzia:
«Arako an dagona, Beltxeran-erria;
Barrenagoko arrek Galtza du gorria...
—oroi du bakoitzaren ezizen bitxia!

An *Elosta*, an Gorriti kipuzek errea,
An *Azpiroz-malkorra* zugatzik bagea;
Uitziko bi borda, baso-txondar kea.
Txokoanago dugu gure erri maitea:
Orra Larraun guzia, erriz, hordaz, txea.

An Beruete'ko *Orin*; gero Basaburu;
Aren eskuin Ultzama; laister Eltzaburu,
Orokietan ta Arraitz ikusiko ditugu.
Aralar'a bidea dugunean buru,
Naparro guziaren erdia inguru.

«Burni-gurutze gora, *Ata*'ko zelaia:
—baso artan ba dago egur ta zurgala—.
Sasibeien atzetik dabilla beizaia;
Txabolan gaztagiten bestoruz artzaia;
Aurten esnerik ez, ta aztua du usaia.

Ezker, etxe txiki bat: «Trinitate elizatxo»
Amonak au Mikel'i maiz aipatzen dio:
Aingeru danak baño Jainkoa aundiago
(San Migelek esparik ontaz ez izango),
Naparren eraspenna ori zan lenago.

Eliz onen sorreraz ez da zer garbirik.
Aundigoko ori baiño ez oe-da lenik?
Ega'ko Trinitatea ageri da artatik.
Ara begiratu bat bialdu bagerik,
Ez du Mikel'ek uzten, amonak esanik.

Agertu bat aurrena Irutasunari;
Urrena, Dudari dun Goi-aingeruari;
Meza-aurreti, inguruan ba dute ekuskari;
Aralar'ez arontza Sakana da ageri,
Ziordi'tik Iruña'ra makiñabat erri.

Jendeak eldu dira oiñuts eta baru;
Iñoiz izatekoz, gaur samurtuko zeru.
Larre ezea, legorak dularik zozortu,
Artxintzar eta arkaitzak Muturra zorroztu,
Larrurik lodienak dira azal-urratu.

Legor-apurra jan ta ur-ase bat egin;
—Otzegia edanez, norbaitek sabel-min!,
Elizan sar-atera Letarien aitzin;
Aldare eskuñetara sugearen osin;
An Kredoka ari dira dutenak buru-min.

Oin odolez busti du norbaitek zelaia:
Ontan igari ezazu aien euri naia.
Ola aurrera diteke Jaunaren garaia:
Ain zuzen nabari da Urbasa'n odeia;
Bezten asi danetik, ba du lertu naia.

Mun eta musu, beratu dute
Aingeruaren biotza;
Odeiek gaur ez dute gezurrik;
Ostotz legorak Igaro oi dira
Billatuz erri arrotza;
Baña aurpegiaren zirrara sartuz
Eldu du eguratz otza.

Ipar-aizeak lenengo odeiei
Bultz egin die urrutira;
Ain atzetik beste ta beste
Burruka-bage juan dira;
Araba-aldetik, Gipuzkoa'tik

Jar dituzu bi, begira;
Aizea arrotuz, erronka aurrena,
Urrena tximist-dirdira.

An dago Jauna. Utsetik oro
Egin dunak ezin al-du
Odeiaren beltzez bustitik
Su kiskalgarria sortu?
Su orrek, berriz, odeia lertuz,
Euria digu barratu.
Azi du noizbait; berreun mingañek
Mikel'en izena aipatu.

Esker eta arren, Eliz-barnetik
Odeiaren burrunbotsa
Entzuten dute, ta leioetan
Tanta larrien as-otsa.
Ordu luzen atertu bage
Lasatzen zaie bigoza;
Etxeraldian atergururik
Izan ez ta luze poza.

Jaunaren morroi leiala,
Gure erriaren itzala:
Dakigun arren aingeruetan
Indarrez aundi zerala,
«Mikel» izenak esaten digu
«Nor Jaungoikoa bezala?»



Procesión de Corpus en San Miguel

El martes terminaron los rezos en Aralar, pero aún no se compadece el Arcángel; el cielo estará enojado, pero no perdamos la esperanza: aún hay otra fecha en el Santoral.

Dejando a un lado las tradiciones, y tras copiosas comidas, emprendían la subida en un tiempo, caminando descalzos nuestros antepasados mientras sus esposas desgranaban oraciones.

De cada pueblo llevan cuatro corderos, de Lecumberri seis, y en total setenta. Prometen para la próxima rogativa ayunar, para que revienten en aguas las pesadas nubes.

Ocultando en la alforja sus provisiones, desprovistas de vino en la ocasión, comienzan a subir por la Malloa, y nuestra pareja va charlando sin mezclarse con la gente.

En la muga o linde de Lecumberri tienen el primer recuerdo ante la cruz junto al camino, mirando hacia Ata, renovando la tradición de la abuela y rezando por tanto fervorosamente.

Nueve veces dicen Gloria y con los ángeles el «Quién como Dios», significado de Miguel, e imbuido en los niños desde su bautismo.

Va mucha gente de Lecumberri hacia Iribas, y vienen de Madoz, Oderiz y Astiz, y por la parte de Baráibar suben los restantes pueblos de Larraun, que son diecisiete, mientras por la Malloa suben los seis pueblos de Araiz.

Según van subiendo, van recordando los mozos cuanto saben sobre los pueblos del contorno:

Allá se ve Elostá, y Gorriti, que quemaron los guipuzcoanos, las desnudas peñas sobre Aspíroz, dos bordas de Huici y más lejos nuestro pueblo. Ahí está todo Larraun con sus casas y bordas. Se ve Orin, Basaburua, Ulzama, Elzaburu, Oroquieta y Arraiz. Más arriba veremos media Navarra.

Pasado Burni-gurutze, alcanzamos el llano de Ata, con hermoso arbolado y abundante ganado vacuno y lanar.

A la izquierda, la ermita de la Trinidad al alcanzar el Santuario. No estará celoso San Miguel, pues Dios es siempre superior a los ángeles. Una entrada en la ermita y luego en el Santuario. Luego, nos recreamos viendo las magníficas vistas sobre la Barranca, y más aún desde Ciordia a Pamplona.

Llegan las gentes descalzas y en ayunas; esta vez se ablandará el Cielo, sobre el suelo pedregoso y reseco.

Tras un bocadillo y un trago de agua fría, que a alguno dañó el estómago, se rezan las letanías, y los credos rituales en la boca de la sima. Hasta con sangre de los pies descalzos se ha mojado el herbal. No hay duda que nos atenderán de arriba, pues se vislumbran gruesos nubarrones sobre Urbasa.

Han ablandado el corazón del Arcángel, y se oyen los truenos y entra aire frío del Sur. Hay una gran lucha ahora con el viento que viene del Norte y surgen los relámpagos; allá está Dios, que ha hecho que esas nubes revienten en lluvia y desde el interior del templo se oyen los truenos, al tiempo que una lluvia pertinaz les ensancha los corazones.

Ángel del Señor, sabemos que eres poderoso, sobre todo cuando dijiste: ¿Quién como Dios?